

8. FUNTZESKO JARDUERAK

Beste ataletan esan dugun bezala, **BIC** enpresarekin egindako azpikontratazio edo **hitzarmen-kometzialagatik**, gure ekoizpen prozesua BIC enpresarekin gauzatu dugu. Horregatik gure enpresa manufaktura-enpresa denez esan dezakegu gure



jarduerarik garrantzitsuenetari ko bat haien eskuetan geratzen dela.

Beste aldetik, gure **web gunetik egingo dugun kudeaketa oso garrantzitsua izango da**, baita giza-sareetan egindako publizitatea ere. Gure ustez gaur egun gizartea nahiko teknolizatuta dagonez eta gure bezero potentzialek hauek asko erabiltzen dutenez, gure salmentak igotzeko

baliogarria izango lukeelakoan gaude.

Publizitateari eta propagandari garrantzi asko emango diegu ere, hasierako orduan oso garrantzitsua dela uste dugulako, horretarako lehen esan dugun moduan, sare sozialak eta webgunea ez ezik beste publizitate motak ere erabiliko ditugu. **Telebistan gure suborradorea aurkezten duen iragarki bat egoten saiatuko gara.** Jende gazteak eta umeek erosten dituzten aldizkarietan ere iragarkiak jarriko ditugu, hauek gure bezero potentzialen talde handi bat baitira.



Gizartea hobetzeko jarduera baten bat egin nahi dugu ere. Gure enpresak erabilitako lehengai gehienak ekologikoak direnez, gure enpresa saila guztietan **eco-friendly** izatea saiatuko gara. BIC

enpresarekin akordio batera ailegatuko dugu gure produktua ekoizteko egindako ekoizpen-prozesua ez kutsatzeko.

Amaitzeko gure **bezeroekin harreman on eta estu bat izatea garrantzitsua da**, horregatik gure webgunean gurekin harremanetan jartzeko helbide eta telefono zenbaki bat erraztuko dugu, horrela gure bezeroek guri edozein iradokizun egin ahal izateko. Pertsona bat kontratatuko dugu jarduera hau gauzatzeko eta gure bezeroei tratu hoberena emateko. Egindako iradokizunak kontuan izango ditugu aldaketak egiterako orduan, **gure ustez enpresa batek bezeroen beharretara moldatu behar delako.**

